BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3215

EBAZPENA, 2013ko ekainaren 17koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, gizarte-bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko diru-laguntzen balorazio-batzordea osatzen duena.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak, 2013ko maiatzaren 2an, gizarte-bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko diru-laguntzak emateko modua arautu zuen agindu baten bidez (Euskalgintza deialdia). Agindu hau, 2013ko maiatzaren 6an argitaratu zen EHAAn.

Aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko osatuko den balorazio-batzordearen osaera era honetan arautzen du aipatu aginduaren 14. artikuluak:

14. artikulua.– Balorazio-batzordea.

(...)

2.– Balorazio-batzordea honako kide hauek osatuko dute:

a) Euskara Sustatzeko zuzendaria edo haren ordezkoa, batzordearen buru izango dena.

b) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria edo haren ordezkoa.

c) Foru Administrazioetako hizkuntza politikaren ardura duen saileko teknikari bat, gutxieneko maila zerbitzu buruarena delarik, edo haren ordezkoa.

d) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hezkuntza Sailburuordetzako teknikari bat, gutxieneko maila zerbitzu buruarena delarik, edo haren ordezkoa.

e) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako teknikari bat, gutxieneko maila zerbitzu buruarena delarik, edo haren ordezkoa.

f) Euskalgintzaren arloko aditu bat.

g) Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Dokumentazio eta Informazio Zerbitzuaren arduraduna edo haren ordezkoa.

h) Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako teknikari bat, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatutakoa. Horrek idazkari-lanak egingo ditu eta hitza izango du, baina ez botorik.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengo.– Gizarte-bizitzan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko diru-laguntza deialdiaren balorazio-batzordeko kideen izendapena egitea.

Bigarren.– Honako hauek dira 2013ko maiatzaren 2ko Aginduaren 14.2 xedapenaren arabera izendatutako balorazio-batzordeko kideak:

a) Jokin Azkue Arrastoa, Euskara Sustatzeko zuzendaria, batzordearen buru izango. dena. Ordezkoa, Jorge Giménez Bech, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria

b) Gotzon Lobera Revilla, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria. Ordezkoa, Joseba Erkizia Itoitz, HABEko zuzendari nagusia.

c) Jokin Larrañaga Larrañaga, Arabako Foru Aldundiaren Euskararen Foru-Zerbitzuko burua. Ordezkoa, Jesús Arrieta Barinagarrementeria, hizkuntza normalkuntza teknikaria.

d) Mikel Zalbide Elustondo, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Euskara Zerbitzuaren burua. Ordezkoa, Pedro Sanz Legaristi, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Ikasketa Antolamendu Zerbitzuaren burua.

e) Lurdes Aranguren Sudupe, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako Kultura Behatokiko arduraduna. Ordezkoa, Arturo García Fiel, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzako Kultura Plangintzarako arduraduna.

f) Patxi Agirregomezkorta Leanizbarrutia, euskalgintzaren arloko aditua.

g) Edurne Basoa González, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Dokumentazio eta Informazio Zerbitzuaren arduraduna. Ordezkoa, Araceli Díaz de Lezana, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Estandarizazio Zerbitzuaren arduraduna.

h) José Miguel Odriozola Mujika, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako teknikaria. Azken honek, idazkari-lanak egingo ditu eta hitza izango du, baina ez botorik.

Hirugarren.– Zerbitzuen ondoriozko ordainketak.

Administraziotik kanpoko balorazio batzordeko kideek dietak edota konpentsazioak jasotzeko eskubidea izango dute organo horretan parte hartzeagatik izandako gastuengatik, indarrean dagoen araudiaren arabera. Ordaindu behar diren kopuruak kalkulatzeko oinarri gisa hartuko dira kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan ezarritako kopuruak.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Administrazio-bidea amaitzen duen Ebazpen honen aurka interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, zuzen-zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazio Auzietarako Salan bi hilabeteko epean, honako Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 17a.

Hizkuntza Politikarako sailburuordea,
PATXI XABIER BAZTARRICA GALPARSORO.